


## Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,1 hazi dira 2024ko maiatzean

*Urte artean, 2024ko maiatza eta 2023ko maiatza alderatuta, prezioen hazkundera % 3,7koa izan da*

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,1 igo da 2024ko maiatzean aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. 2023ko hil beraren aldean, kostuak % 3,7 handitu dira.

Eraikuntzako kostuak % 0,1 igo dira eta Obra zibilekoak % 0,2 jaitsi. 2023ko apirilaren aldean, prezioak % 3,3 igo dira Eraikuntzan eta % 5,4 Obra Zibilean.

### Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren —2024ko apirila— aldean, **lehengaien** kostuak % 0,1 igo dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, ez dira aldatu. Urte arteko terminoetan, lehengaien kostua % 3,2 igo da eta eskulanarena % 5,4.

Lehengaien kostua hil artean % 0,2 igo da Etxegintzaren sektorean, eta % 0,3 jaitsi Obra zibilarenean. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuak % 2,7 hazi dira eta Obra Zibilekoarenak % 5,4.

## Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2024

|                   | Indizea      | Aldakuntza (%) |            |
|-------------------|--------------|----------------|------------|
|                   |              | m/m-1          | m/m-12     |
| <b>Guztira</b>    | <b>130,3</b> | <b>0,1</b>     | <b>3,7</b> |
| Eraikinak         | 129,5        | 0,1            | 3,3        |
| Obra zibila       | 133,5        | -0,2           | 5,4        |
| <b>Lehengaiak</b> | <b>131,7</b> | <b>0,1</b>     | <b>3,2</b> |
| Eraikinak         | 130,8        | 0,2            | 2,7        |
| Obra zibila       | 135,9        | -0,3           | 5,4        |
| <b>Laneskua</b>   | <b>125,5</b> | <b>0,0</b>     | <b>5,4</b> |

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Ekainaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioetan honako azpisektore hauetan izan ziren igoera handienak 2024ko maiatzean, 2023ko maiatzaren aldean: *Mineral ez-metalikoak* (% 12,3), *Altzarigintza* (% 4,2) eta *Petrolioia fintzea* (% 3,3). Aldiz, hauek izan dira sektoreko lehengaiak diren produktuak —horien prezioek behera egin dute gehien— ekoizten dituzten azpisektore nagusiak: *Energia elektrikoa eta gasa* —% 37,6ko murrizketarekin— eta *Mineral ez-metalikoen industria* —% 7,4ko jaitsierarekin—.

## Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Maiatza 2024

|                                 | m / m-12 |
|---------------------------------|----------|
| Ezmetalezko meak                | 12,3     |
| Zuraren eta korboaren industria | -5,7     |
| Petrolioia fintzea              | 3,3      |
| Industria kimikoa               | -2,3     |
| Kautxua eta plastikoa           | 0,6      |
| Produktu mineral ez-metalezkoak | -7,4     |
| Metalgintza                     | 0,5      |
| Metalezko artikulak             | 1,8      |
| Material elektronikoa           | 1,1      |
| Material elektrikoa             | 2,6      |
| Makineriaren fabrikazioa        | 1,2      |
| Altzarigintza                   | 4,2      |
| Energia elektrikoa eta gasa     | -37,6    |

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Ekainaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62